


ZEREALAK EZAGUTU ESKUAK

ZIKINDUZ:

Pasta freskoa ekoizteko tailerra



Edukia:

Tailerra **bi zatitan** banatzen da; bata **teorikoa** eta bestea **praktikoa**.

Sarrera bezala zerealei buruzko oinarrizko azalpen bat ematen da, giza asentamenduetan izan duten garrantzia azpimarratuz. Irin eta semola ezberdinak ezagutzen dira, haien testurak eta ezaugarriak, eta pastaz gain, ekoizten diren beste oinarrizko elikagaiei buruz hausnartzen da.

Bigarren zatian pasta freskoa ekoizten da, bost kideko taldeetan banatuta. Parte-hartzaileen nahiaren arabera, irin edo semola ezberdina banatzen zaio talde bakoitzari, hauen ezberdintasunak praktikan ere antzemateko, nahiz eta haur txikiekin ez dugun gomendatzen; kasu horietan guztiei banatzen zaie Gari Xuriaren semola, “betiko” pasta egiteko eta lantzeko errazena baita.

Nork bere masa egin ostean, talde bakoitzari masa luzatu eta mozteko makina bat jartzen zaio, eta txandaka aritzen dira, batak bestea laguntzen dutelarik. Behin tallarinak eginda, bakoitzak bere pasta eramaten du, etxekoekin otordua partekatzeko ilusioz.

Helburuak:

- Zerealen eta gizakiaren arteko koeboluzioa aztertu
- Elikadura endemikoaren garrantzia baloratu
- Taldean lan egin, eta elkarren laguntza behar dugula ulertu
- Elikagaien ekoizpena baloreari jarri
- Norberak egindako otordua etxera eraman eta ongi egindako lanaren saria gozatu

Norentzat:

Egokia da **adin guztientzat**, beti ere autonomia edo trebetasun minimo bat eskatzen delarik, edota haur txikiei laguntzako pertsona osagarriak. Bestalde, taldekide **kopuru maximoa 25** lagunekoa da, laguntzaileen arabera pixka bat handitu daitekeelarik.

Iraupena:

60-90 minutuko tailerrak eskaintzen ditugu, parte hartzaileen **adina** eta taldekide **kopuruaren** arabera egokitzen direlarik.



Lekua:

Tailerra jasotzeko **bi aukera** daude. Bata Oreretako **gure lokalean**, obradorea eta denda bisitatzeko aukera dagoelarik; eta bestela **zuek proposatutako** espaziora mugitu eta egokitzen gara, ez baita azpiegitura berezirik behar.